

**10. GAIA:**  
**ZER EGIN BEHAR DUT INSTRUKTORE IZATEKO?**

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Ikastaro honetako gai desberdinetan azaldu da, practicumaren testuinguruan ikaslearen ikaskuntza prozesuan instruktoreak duen garrantzia, betiere unibertsitateko irakasle tutorearen laguntzarekin. Erizaintzaren indargune bat da, besteak beste, erizaintzako profesionalak bere gain hartzea ikasleen formazioa praktikaldian, eta unibertsitatearen betebeharrak bat da beren erakundearen egiten diren praktikaldietan ikasleen prestakuntzan parte hartzen duten erizain guztiei beren zeregina erraztea eta prestakuntza eta eskerrak ematea.

Ikasleen prestakuntzan parte hartzen duten erizaintzako profesionalen artean, instruktorea dago. Horrela, UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen araudiak (2019ko abuztuaren 6ko EHAA, 147. zk.), I. kapituluaren, ikasleen prestakuntzan erantzukizun handiena duten figurak jasotzen ditu, eta zehazten du ikasle bakoitzak praktika-ziklo bakoitzean instruktore bat eta irakasle tutore bat izan behar dituela esleituta. Era berean, figurak honela definitzen dira:

- Instruktorea, kanpoko praktika akademikoak gauzatuko diren erakunde laguntzaileko kidea da, eta bertan egiten du lan, eta haren egiteko nagusia da prestakuntza jarduerak antolatzea, unibertsitatearekin ados jarrita.
- Tutorea UPV/EHUko irakasle-ikertzaile bat da, eta haren egiteko nagusia erakunde laguntzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikasleari jarraipena egin eta laguntzea da.

Era beran, Praktika Programaren Arduraduna (PPA) dago, unibertsitatearen ikastegiko pertsona bat da, eta haren egitekoa da kanpoko praktika akademikoaren programa antolatzea, koordinatzea eta kudeatzea. Gainera, erakunde laguntzailean, arduraduna den pertsona bat egoten da unibertsitateko PPAekin koordinatuko dena.

Aurretik aipatutako arautegiaren 13. artikuluan zehazten dira erakunde laguntzaileko instruktorearen eskubideak eta betebeharrak eta esaten da eskubidea dutela:

- Bere laguntzaile jarduera aitortua izateko eskubidea: Dekanotzak edo Zuzendaritzak Venia Docendi aitortuko die erakunde laguntzailearen instruktoreei, eta dagokion ziurtagiriarekin egiaztatuko da, Dekanoak edo Zuzendariak sinatuko duena.
- Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiaren berri izateko eskubidea, baita prestakuntza proiektua eta hura garatzeko baldintzak ezagutzeko ere.
- Unibertsitatean sartzeko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eta babesa eskuratzeko.
- Unibertsitateak ezar ditzakeen beste kontsiderazio espezifiko guztiak.

Instruktorearen betebeharrei buruz, hau aipatzen da:

- Ikasleari harrera egin, eta garatu beharreko jarduera antolatu beharko du, prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratu, eta praktikaren garapena orientatu eta kontrolatu beharko ditu, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harremanean.

- Ikasleari erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren berri eman beharko dio, baita intereseko araudia ezagutarazi ere; batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arlokoa.
- Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean zehaztutako jardueren garapena unibertsitateko tutorearekin koordinatu beharko du, eta, hala badagokio, praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza proiektuan beharrezkotzat jo daitezkeen aldaketak egin. Era berean, bitarte horretan gerta daitezkeen gorabeherak jakinarazi eta soluziobidean jarri beharko ditu, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatuko ditu.
- Zehaztutako ebaluazio proiektuan parte hartuko du, irakasle tutorearen laguntzarekin.
- Ikasleari praktikak egin ahal izateko behar duen prestakuntza osagarria eman beharko dio.
- Ikasleari praktikak egin ahal izateko ezinbestekoak diren bitarteko materialak eman beharko dizkio.
- Ikasleari erraztasunak eman eta bultzatu berrikuntza, hobekuntza eta ekintzailtza proposamenak egin ditzan.
- Unibertsitateko tutoreari erakunderako sarbidea erraztuko dio, bere eginkizunari dagozkion helburuak bete ditzan.
- Instruktoare lanaren bidez ikasleari buruz eskuratzen duen edozein informazio isilpean gorde beharko du.
- Erakundearen ari den bitartean ikasleari beharrezkoa den laguntza eman beharko dio, eginkizun dituen jardueretan suerta daitezkeen lan izaerako arazoak konpontzeari begira.
- Instalazio eta baliabideen erabilera bermatuko du, praktikak egiteko, eta zehaztuko du, halaber, hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua, eskura dauden baliabideen eta lortu nahi diren helburuen arabera.

Azpimarratu behar da Donostia ataleko Erizaintza Gradu praktikumean ezarritako tutoretza-prozesuan integratuta daudela prestakuntzan inplikaturako eragile guztiek egin beharreko ekintza guztiak, hau da, ikasleak, instruktorea eta irakasle tutoreak egin beharrekoak. Horrela, inplikaturako pertsonen arteko koordinazioa errazten da eta ebaluazioa prestakuntzari begira egitea ahalbidetzen da.

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatetik erizaintzako profesionalak animatu nahi ditugu etorkizuneko profesionalak izango diren ikasleen prestakuntzan instruktore gisa parte hartzera. Horretarako, instruktore izateko duten interesaren berri eman beharko diote beren erakundeko arduradunari, eta hark unibertsitateko PPari jakinaraziko dio. Azken horrek, araudiak adierazten duen bezala, adostasuna ematen dio erakunde laguntzaileak hautatutako instruktoreari. Adostasun horrek Venia Docendi aitortzea ekarriko du. Hortik aurrera, unibertsitatea instruktorearekin harremanetan jarriko da, praktikumaren aurretik eta denboraldian zehar, informazioa eta prestakuntza emateko, ikastaro honetako aurreko gaietan adierazi den bezala.